Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

666

AGINDUA, 2010eko urtarrilaren 15ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Silvia Nieto García andrea Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoko praktiketako funtzionario izendatzen duena.

Silvia Nieto García andreak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2007ko urriaren 9ko Aginduaren kontra jarritako 1978/07 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaia betez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariak 2009ko abenduaren 14ko Ebazpena eman zuen, Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren 2007ko uztailaren 30eko Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak jendaurrean jarri zituena, aldatu zuena. Horren ondorioz, Silvia Nieto García andrea maisu-maistren kidegoan izangai hautatu gisa sartu zen, Haur Hezkuntzako espezialitatean, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizunarekin eta 7,6180ko puntuazioarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautaketa-probak deitu zituen 2007ko martxoaren 16ko Aginduaren 12.1 oinarrian xedatutakoari jarraiki, eta bertan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Silvia Nieto García andrea, zerrendako 2007095310 zenbakia duena, maisu-maistren kidegoko praktiketako funtzionario izendatzea, Haur Hezkuntzako espezialitatean, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizunarekin, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2007ko martxoaren 16ko Aginduaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko deitutako hautaketa-prozedura gainditu izanaren ondorioz.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

666

ORDEN de 15 de enero de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se nombra funcionaria en prácticas del Cuerpo de Maestras y Maestros de la Comunidad Autónoma del País Vasco a Dña. Silvia Nieto García.

En cumplimiento de la sentencia dictada por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el recurso contencioso-administrativo n.º 1978/07 interpuesto por Dña. Silvia Nieto García contra la Orden de 9 de octubre de 2007 del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, se dictó Resolución de 14 de diciembre de 2009, del Director de Gestión de Personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, que modifica la Resolución de 30 de julio de 2007, de la Directora de Gestión de Personal, por la que se hacen públicas las listas definitivas de aspirantes seleccionados en el proceso selectivo para el ingreso en el Cuerpo de Maestros de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Como consecuencia de ello, se incluye a Dña. Silvia Nieto García como aspirante seleccionada en el Cuerpo de Maestras y Maestros, Especialidad Educación Infantil, turno libre, perfil lingüístico 2, con una puntuación de 7,6180.

De conformidad con lo dispuesto en la base 12.1 de la Orden de 16 de marzo de 2007, por la que se convocaron pruebas selectivas para el ingreso en el Cuerpo de Maestras y Maestros de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y verificada la concurrencia de los requisitos exigidos en la misma,

RESUELVO:

Primero.– Nombrar funcionaria en prácticas del Cuerpo de Maestras y Maestros, Especialidad Educación Infantil, turno libre, perfil lingüístico 2, a Dña. Silvia Nieto García con el número de lista 2007095310, como consecuencia de haber superado el procedimiento selectivo convocado por Orden de 16 de marzo de 2007, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, para el ingreso en el Cuerpo de Maestras y Maestros de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Bigarrena.– Praktiketako funtzionario izendatzeak esleitutako lanpostuaren jabetza hartzen duenetik sortuko ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Agindu honek izendatutako funtzionarioaren erregimena, indarrean dagoen legeriak praktiketako funtzionarioentzat ezarritakoa izango da.

Laugarrena.– Baimena ematen zaio Langileriaren Kudeaketa zuzendariari agindu hau betearazteko beharrezkoak diren argibideak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari dagokio epaia betearazteko izapideetan sor litekeen guztiaz arduratzea, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenaren 103.1 eta 109. artikuluek xedatzen dutenari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 15a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Segundo.– El nombramiento como funcionaria en prácticas surtirá efectos económicos y administrativos desde la toma de posesión en el destino adjudicado.

Tercero.– El régimen de la funcionaria nombrada por la presente Orden será el establecido por la legislación vigente para los/as funcionarios/as en prácticas.

Cuarto.– Se autoriza al Director de Gestión de Personal para que dicte las instrucciones precisas para la ejecución de la presente Orden.

DISPOSICIÓN FINAL

Compete a la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco conocer de cuanta cuestión pueda plantearse en trámites de ejecución de la Sentencia, conforme a lo que disponen los artículos 103.1 y 109 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de enero de 2010.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.